

Gorka Artola Alberdik, Bergarako Udaleko Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera, gaia aztertu eta ebazpena eman dut.

Gaiaren azalpena:

2026ko urtarrilaren 28an dekretu baten bidez erabaki zen 2026ko martxoaren 28an ospatuko den Erramu Zapatuko Ferian eusko labeldun produktu bat saltzeko txosnaren ustiapena adjudikatzeko deialdia egitea eta deialdi hori arautzeko oinarriak onartzea.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, 2025eko martxoaren 13an zozketa egin da eta ateratako hurrenkera honako hau izan da:

- Harrera elkarte
- Aurrera Kultur Elkarte
- Burdinola

Hori ikusita,

ERABAKI DUT

Lehena.- Eusko labeldun produktu bat saltzeko txosnaren ustiapenaren adjudikazioa Harrera elkarteari egitea, oinarrietan jasotako baldintzetan.

Bigarrena.- Beste bi eskatzaileekin itzarote-zerrenda osatzea, honako hurrenkera honekin:

- 1.- Aurrera Kultur Elkarte
- 2.- Burdinola

Erabakiaren aurkako errekursoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio-bideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtoa edo administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtoa aurkez dezake, 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena):

- *Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.*
- *Non: Alkatetzara jo behar da.*

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 25. eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik:

- *Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.*

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsuaren erantzunaren aurka jotzeko:

- Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsuaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berriazko araudiaren arabera presuntziorako ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

- Non: Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, Alkateak agindu eta izenpetzen du eta nik, Idazkariak, ziurtatzen dut, Bergaran, dekretuaren datan.

Alkatea
Gorka Artola Alberdi

Idazkaria
Xabin Juaristi Arrieta

